

5 Sariak.

"XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" eskuratzen duenari 9.000 euro garbi emango zaizkio.

"Kazetari Berria saria" eskuratzen duenari 3.000 euro garbi emango zaizkio.

"Epaimahaiaren sari berezia" eskuratzen duenari 4.000 euro emango zaizkio.

Gainera, lehen bi sari-ataletako saridunei *Rikardo Arregi Kazetaritza saria*ren kaxa oroigarria emango zaie eta agiri-diplomak jasoko dituzte saridun guztiek.

Sariak zatietan dira, baina, hori bai, taldean edo elkarlanean egindako lanei ere eman dakieke saria.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du Epaimahaiak.

6 Epaimahaia.

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

* **Mahaiburua:** Andoaingo Udaleko Alkatea, José Antonio Pérez Gabarain, edo honek bere ordezkoko gisa izendatutako udalkidea..

* **Mahaikideak:** Jose Ignacio Basterretxea jauna, Ana Urkiza andrea, Arantxa Urretabizkaia andrea, Agustin Errotabehere jauna eta Aitor Zuberogitia jauna.

* **Idazkaria:** Andoaingo Udaleko euskara teknikaria, hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo duena.

7 Sariei buruzko Azken Erabakia.

2007ko udan emango da aditzera sariei buruz epaimahaiak hartutako *Azken Erabakia*, apelaezina izango dena.

8 Baldintzak onartzea.

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.



Rikardo Arregi

Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942 - Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta huraxe izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak **"Politika Estrukturak europear alkartasunean"** (1965); **"Politikaren atarian"** (1969); **"Herriaren lekuko"** (1972)...




ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalkuntzarako
Lansaila



EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila

XIX. Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria



2007



ontuan hartuta euskararen normalkuntzak ezinbestez behar dituela euskaraz egindako kazetaritza eta, oro har, komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa, Andoaingo Udalak XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza sarirako deialdia egiten du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:



Sariaren xedea.

Euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren helburua. Horrela, bada, ondoren zehazten den urtebeteko epearen barruan egin izan diren kazetaritzaren kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, epaimahaiak eredugarrien iritzitako lanak sarituz.



Sari-atalak.

Ondoko hiru atalotan banatzen da saria:

- * XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria.
- * Kazetari Berria saria.
- * Epaimahaiaren Sari Berezia.

Aipaturiko hiru sari horiez gain egoki edo beharrezko iritziz gero Aipamen Berezia egiteko aukera eskura du epaimahaiak.

Halaber, euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen Ohorezko Aipamena egiteko aukera ere aitortzen zaio epaimahaiari.



Sari-atalen ezaugarriak.

1.- "XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" izeneko atala.

2006eko maiatzaren 16tik 2007ko maiatzaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek, hala nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritza-lanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera.

Edozein mota edo jenerotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako jenero-mugarik gabe erabakiko du saria.

Saria erabakitzeke irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera nabarmendutako artikulua edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat, kazetari talde bat... horietarik edozer eta/edo edozein saritu ahal izango du epaimahaiak.

2.- "Kazetari Berria saria" izeneko atala.

Kazetaritzaren hastapenetan dabilizanei zuzendutako saria da hau, eta, ondorioz, hogeita zazpi urtez azpikoek, hau da, 2007an, hogeita zazpi urte edo gutxiago izango dituztenek parte har dezakete atal honetan.

Herrietako aldizkari eta irrati eta telebistak, hala nola hedadura zabalagoko komunikabideak: horietatik guztietatik edozein izan daiteke 27 urtez azpikoek Kazetari Berria saria jasotzeko lana plazaratzeko erabilitako komunikabidea.

Edozein mota edo jenerotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Horrela, bada, 2006eko maiatzaren 16tik 2007ko maiatzaren 15era bitartean prentsa idatzian edo irrati eta telebistetan plazaratutako artikulua, erreportaje, informazio-programa, magazin eta abarren artean kalitatea eta egokitasuna kontuan hartuz epaimahaiaren iritzian bikainena denari emango zaio saria.

3.- "Epaimahaiaren Sari Berezia" izeneko atala.

2006eko maiatzaren 16tik 2007ko maiatzaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek, hala nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritza-lanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera. Beraz, Sari Nagusirako hautagaien artetik, epaimahaiaren iritziz bereziki saritu nahi duen irizpide jakin bati jarraituz emango da sari hau.

Edizio bakoitzean osatzen den epaimahaiak aukeratuko du zein irizpide nabarmendu nahi duen. Epaimahaiaren Azken Erabakian argituko du Epaimahaiak zein irizpideren arabera eman duen Epaimahaiaren Sari Berezia.



Lanak aurkeztea.

1.- "XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria" izeneko

atalean autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, beti ere 2007ko maiatzaren 25a baino lehen hurrengo puntuan adierazten den helbidera lanaren sei kopia bidaliz. Gainera, prentsa idatzian argitaratutako idazlanen kasuan, argitalpenaren kopia bat bidali beharko da, eta, irrati edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagokion enpresak luzatutako emisio-ziurtagiria. Edozein modutara ere, nahikoa litzateke aipatutako argitalpenaren kopia edo emisio-ziurtagiriaren ordeza lana aurkezten duenaren beraren zinpeko aitortpena igortzea, argitalpen edo emisio eguna eta komunikabidea adieraziz. Beste horrenbeste esan liteke agerkari digitaletz ere.

Aditzera ematen da, nolanahi ere, saria eskuratzeko ez dela ezinbestekoa izango inolark aldeztu aurretik lanak eta/edo proposamenak aurkeztea. Izan ere, epaimahaiak egokien iritzien duen moduan egingo ditu sari hori erabakitzeke egin beharreko jarraipen eta hautaketa lanak. Hala eta guztiz ere, lanak eta/edo proposamenak aurkez ditzaten dei egiten zaie autore, komunikabide eta sariaren helburuekin zerikustekorik dutenei.

2.- "Kazetari Berria saria" izeneko atalean saria eskuratzeko nahitanahiezkoa da lanak aurkeztea. Izan ere, atal honetako saria aurkeztutakoen artean erabakiko baitu epaimahaiak. Kasu honetan ere autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikustekorik duen edozeinek aurkez ditzakete lanak, 2007ko maiatzaren 25a baino lehen gero aipatzen den helbidera lanaren sei kopia bidaliz.

3.- "Epaimahaiaren sari berezia" eskuratzeko ez da ezinbestekoa izango lanak aurkeztea. Aurkezteko modua, ordea, Sari Nagusirako emandako irizpideen arabera egingo da.

4.- Hona sarira aurkeztutako lanak bidaltzeko helbidea:

Andoaingo Udaletxea

XIX. Rikardo Arregi saria

Goikoplaza, z/g

20140 ANDOAIN

